

VICTORIA MENDOZA - BANITZ KULTURANIZTASUNERAKO ELKARTEA

## “Aurreneko aldiz heldu zaio inmigrazioaren gaiari inmigrante eta bertakoen hitza aintzat hartuta”

■ Lan talde bat osatu da sektore ezberdinetako jendearekin eta hamabostero bilduko da, diagnostia osatu artean behintzat ■ Padroiazen arabera, 300 inmigrante inguru daude Hernanin, 100 familia.

BANITZ Kulturantzaren proiektu bat jarri dute mar txan inmigratioaren gaia aztertu eta aurrera begirako plan bat osatzeko. Aurreko astean aurkeztu zen proiektu hori eta aste honetan osatu da lan hori bultzatuko duen batzordea. Lan talde horretan, sektore ezberdinetako jendea bildu da: hezkuntzako jendea, euskera mundukoa, elkarrekin lan egiten duten elkarrekinak, gizarte laguntzaileak, kanpotik etorritako jendea eta abar.

Victoria Mendoza da Banitz elkartearen kidea eta lan talde horretako koordinatzaileetako bat eta nabarmendu du orain arte inmigratioari buruzko planak egin direla inmigranteen pertzepzioa kontuan hartu gabe. Victoria Mendozaren hitzetan, Hernanin planteatzen den proiektuaren berritasuna eta garrantzia da herri batean aurreneko aldiz heldu zaiola inmigratioaren gaiari inmigranteen eta bertakoen ikus-puntua eta kezka kontuan hartuta.

### Ez zenbat, baizik nola

Victoria Mendozak azaldu zuenez, inmigratioari buruzko azterketa baten muina ez da jakitea zenbat inmigrante dauden: “Benetan garrantzia duena da barrutik ezagutzeko pertsona horiek nola bizi diren, nola erlazionatzen diren elkarrekin, zer kezka eta arazo dituzten, nolako tratua duten hernaniarrek, nola ikusten dituzten hernaniarrek, eta beren ohiturak, ba



Victoria Mendoza hizketan joan den astearteko bileran.

ote dakiten hemen beste hizkuntza bat dagoela eta ikasketan umeez euskeraz ikasten dutela eta abar” dio Mendozak.

Era berean, inmigrantearen barrua azaltzea bezain inportantea ikusten du Banitzeko kideak, bertako jendeak inmigrantea nola ikusten duen jakitea: harremanik baduen, zer eskatzen dion eta abar.

### 40 elkarrizketa

Bi aldeetako pertzepzioak barru-barrutik eta sakon ezagutzeko Banitzek 20 inmigrante eta 20 hernaniar elkarrizketatuko ditu. Etorrinen artean, jatorri guztietako ordezkariak egitea da helburua, eta bertakoei, berriz, sektore ezberdinetako jendeari, errealitatea bere osotasunean

ezagutzeko. Proiektuaren aurreneko faseak, diagnostiak, lau hilabete inguru beharko ditu eta aste honetan sortu den batzordeak parte hartze zuzena izango du. Datorren bileran hurrengo asteazkenean egingo da, Biterin, 18:00etan.

### 100 familia Hernanin

Padroian oinarrituta Victoria Mendozak emandako datuen arabera, Hernanin 100 inmigrante familia inguru daude, denera 300 pertsona. Azpimarratu dute azken hiru urteetan kanpoko jende asko etorri dela Hernanira. Banitzeko esanetan, kanpoko jende gehiena da Marruekos, Argelia, Argentina, Kolonia, Kuba, Rumania eta Errusiakoa. Batzordean bildu diren zenbaiten kezka zen zer egin edo

nola lagundu zitekeen inmigranteen egoera legalizatzen. Erantzunetako bat izan zen horrelako proiektuek lagundu lezaketela bultzatzen bere esku ez dauden gaietako eskaerak, paperena adibidez. Baina, uste dute bizimodua hobe izaten gehiago lagunduko duela mundu eta errealitate ezberdinak ezagutu eta harremanetan jartzeak.

### Motibatu hemengoak gustatzera

Victoria Mendozak esan zuen kanpotik datorrenak askotan ez duela jakiten nora datorren. Banitzeko kidearen esanetan, etorkinak motibatu egin behar dira hemengo ohitura, hizkuntza, jaiak eta abar gustatzera. □

## Udaletxea eratzeko ekitaldia gaur

GAUR da korporazio berriaren inbestidura ekitaldia, goizeko 10:00etan Pleno aretoan. Gaurko ekitaldian erabakiko da Hernaniko Alkatea nor izango den datozen lau urteetan. Alkateak gehiengo osoa atera beharko du botazioan (hau da 9 zinegotziren botoa) eta inor gehiengo osoa iritsiko ez balitz, hauteskundeetan boto gehien lortu duen Alderdiko zerrenda burua jarriko litzateke Alkate zuzenean. □

## BILDU HERNANI

### Mobilizazioak gaur

BILDU Hernanik “hauteskundeetan ateratako emaitzak errespetatzea” eskatzeko mobilizazioak egingo ditu gaur. Taldeak salatzen du herrian botorik gehien izan zutela eta Udala eratzera dijoan honetan ez dela “herriaren hitza errespetatuko”. 11:00etan bilera dago Plazan eta 13:00etan manifestazioa. □

## FESTAK EREÑOTZUN

### Arraun desafioa Latxeko presan

EREÑOTZUKO festen barruan trainerila desafioa dago, Ereñotzuko arraunlariak Hernaniko arraunlarien kontra. Parte hartuko dute azken urteetan Hernanin arraunean ibilitako hainbat lagunek eta giroa bero bero dago Ereñotzu aldean. 19:00etan hasiko da estropada Latxeko presa inguruan. Horrez gain, bola eta toka daude goizean, haurrentzako jolasak 17:30etan eta txokolatada, eta goizaldean Izotz taldearekin dantzaldia. □

### Axeri Bila proba gaur

AXERI Bila herri lasterketa gaur da Hernanin. Umeentzako probak 17:30etan hasiko dira eta nagusientzakoak 18:30etan da. Lasterketak 9 kilometro ditu. Irteera Urbieta kaletik. □

## Telemar

Itxastele, S.L.



"Plan renove"  
89 eurotik.

Aldatu zure Activa  
89 eurotik aurrera.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



## IRUBIDE JATETXEA

Epele auzoa 7 - HERNANI  
☎ 943 552 480  
Mobila: 667 208 702



## Antziola-Motor

Salmenta eta tailer zerbitzua

ford Tourneo Connect



Gogortasunaren  
forma berria

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13



Ekintza dantza taldeko lehenengotako partaideak.

## Hamaika talde, zortzi bakarleri eta sei zuzendari gaur, San Joanak iragartzeko kontzertuan

■ Preludioa 22:30etan da eta preludio txikia 16:00etan ■ Ekintza dantza taldea, Sarriegitarrak eta San Joan erronda aterako dira besteak beste.

GAUR da San Joanak iragartzeko kontzertua Gudarien plazan, eta gaurkoarekin beteko ditu hamar urte preludioak. Arratsaldeko 16:00etan Hernaniko 100 ume inguruk eskainiko dute kontzertua. Gauko 22:30etan, berriz, helduen preludioa izango da. Aurten hemengo eta Galiziako doinuak entzun ahal izango dira, Hernanin eta Astigarragan bizi diren Novas Fontes galiar taldeak ere joko baitu.

### Ekintza dantza taldea

Aurten, 80garren hamarkadan desagindako Ekintza dantza taldea bilduko da berriz ere, jende aurrean dantza egitera. Ekintza 1974an sortu zen eta hamar bat urtean herriko gazte ugari hartu zuen parte.

Dantza saioak Hernani eta inguruan egiten zituzten eta *Zigor* antzerki obrarekin herri herri ere ibili ziren. Orduko taldekideek berek esaten dutenez, euskal giroa indartzeko helburua eta errebindikazio kutsua bazuten taldearen orduko emankizunek, eta orduko giroa kontuan hartuta, arrakasta handia izan zuen herrian. Bestalde, dantzari astea ere Ekintzak antolatzen zuen eta orduko argazkiek erakusten dute festaren arrakasta, plaza jendez gainezka azaltzen baita. Gaur, 15 Ekintzako lagunek San Joan zortzikoa dantzatuko dute.

### Sarriegitarrak

Gaurko preludioaren beste berezitasun bat, Sarriegitarrek

jarriko dute. Familiako lau jenerazio aterako dira dantzara, guztira hamar kide.

### Hamaika talde

Musika Banda, txistulariak, Kantuz, Musika Eskolako abesbatza, Ozenki, Parrokiko abesbatza, Musika eskolako taldeak, Kriskitiña, Ttaria eta Ohitura zaharrak abesbatzak, Novas Fontes, tobera joleek eta hainbat bakarlarik hartuko dute parte eta zuzendari lanean ariko dira Patxi Apeztexea, Garbiñe Orbegozo, Zipri Otxandorena, Manuel Sagarra eta Javier Zubimendi. Preludioaren Zuzendari Artistikoa Joxan Goikoetxea da eta gaurko ekitaldia aurkezten Idoia Noble eta Niko Lizeaga ariko dira. □



**Kano eta Aitor txapelkun Aralarko mus txapelketan.** Aralarko mus txapelketako finalak ostegunean jokatu ziren. Txapelkun Kano-Aitor gelditu dira, Juan-Diezi 4-3 irabazita. Hirugarren Villar-Joxek egin dute Joxeba-Inaxiori 4-2 irabazita. Sari banaketa ostegunean egin zen, baina, saririk onena datorren asteazkenean dute, 40 bat lagun Errioxara baitijoaz bodegara, egun pasa. □

## AEK euskaltegiak udako eskaintza kaleratu du

■ Ohizko eskaintzaz gain 4 ikastaro daude: ahozotasuna, musika beltza, euskal jolas eta abestiak eta ipui kontaketa.

HERNANIKO AEK-k udarako antolatu dituen ikastaroen berri eman du. Udako tailerrak eta autoikaskuntzaz gain euskera lantzeko 4 ikastaro ere antolatu ditu euskaltegiak aurten.

- **Udako tailerrak:** behe eta erdi urratsei bideratua. Astean 3 egun egingo dituzte, 2 klasean eta bestean irteera (Udalak diruz lagunduko du).

- **Autoikaskuntza:** Ikasle bakoitzaren beharrei egokitu-tako ikastaroa da. Bakoitzaren beharrak ikusi, mintza praktika klaseak, EGA, EH eta abar ateratzen ari direnentzat zalantzaguneak eta abar egingo dituzte (Udalak diruz lagunduko du).

### Lau ikastaro

Aurtengo udarako antolatu-tako lau saio bereziak dira:

- 1) Ahozotasuna landuz: 10 orduko ikastaroa. Uztailaren 14tik 18ra, 09:30etatik 11:30etara.
- 2) Musika beltza eta elektronikoa: 8 orduko ikastaroa. Uztailaren 21etik 24ra, 19:30etatik 21:30etara.
- 3) Abestu eta jolastu euskaraz: 8 orduko ikastaroa. Uztailaren 7, 14, 21 eta 28an, 09:30etatik 11:30etara.
- 4) Ipui kontaketa: 8 orduko ikastaroa, uztailaren 21etik 24ra.

### Izen ematea AEKn

Izen emateko edo informatzeko AEKn, (Larramendi 11). Tel: 943 557801 edo 943 557879. □

## ■ HITZ BITAN

### ✓ KONTZERTUAK

✓ **'Morau eta Agotak' Betelun.** Morau eta Agotak hernaniar taldeak Beteluko tabernan emango du gaur kontzertua, gauerditik aurrera. Garagardo festa dago Beteluko tabernan eta nahi duenarentzat afaria ere bai.

### ✓ MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

✓ **'Berria' egunkariaren aurkezpena gaur zuzenean.** Molotoff irratiak Berria egunkariaren aurkezpen ekitaldia zuzenean botako du gaur Arroza irrati ekoizpen zentroaren bidez. Irratsaioa arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

### ✓ PELOTA

✓ **Trinketeko partidak gaur Gasteizen.** Hernaniko pelotariak Gasteizko Maitena trinketean dituzte gaur partiduak, 10:00etan hasita. Kadeteetan Apaolazak Fernandez de Gorostizaren kontra jokatu du; eta Ojuel-Ramosek Lekeitioko bikotearen kontra neurtu beharko dute. Jubeniletan, Gurrutxaga eta Irazustabarrena Akerregiren kontra neurtuko dira.

### ✓ XAKEA

✓ **Hernaniko Txapelketako sari banaketa gaur.**

Gaur banatuko dituzte Hernaniko Xake txapelketako sariak Goiz Argi tabernan, arratsaldeko 16:00etan. Aurtengo lau lehenengoak dira: Fernando Esnaola txapelkun, Breogan Estevez bigarren, Jon Altuna *Oxan* hirugarren eta Ixidro Esnaola laugarren. Ondorenean, xake partida azkarren txapelketa jokatu da, inguratzen diren guztien artean. Inskripzioa debalde da eta sariak egongo dira. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- ☛ Taxiak: 943 550093
- ☛ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☛ DYA: 943 464622
- ☛ Autobusak: 943 556662
- ☛ Anbulatorioa: 943 006666
- ☛ Jokalari anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

- ☛ Eguez: Aizpuru  
Latxunbe Berri 11  
☎ 943 336077
- ☛ Gaez: Rodriguez  
Lasarte. Nagusia 42  
☎ 943 361774



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA


ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: Zalakain - Olazar / Juaristi - Etxeberria II
2. partidua: Altuna I-Iriarte / Bitoria - Lizaso
3. partidua: Elizalde - A. Lekunberri / Matxin III-Etxabe
4. partidua: Iturralde-Urretabizkaia II / Zeberio I-Aizpuru II

**TXILIBITA  
TABERNA**

San Antoniotan hamaiketakoak eta bazkariak, 3 egunetan.

Ereñotzu Auzoa-943 33 60 61



**IPARRA  
SUKALDEAK**

Zikuñaga, 61 - lokala zbk. 7  
Ibarluze poligonoa  
Tel.: 943 55 67 60  
Fax: 943 33 19 75  
20120 Hernani